

Lehen Mailako
Arretako gida

Harrera

euskaraz



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETAILKUNTZA
SALA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

EDIZIOA	2012ko otsaila
ALE KOPURUA	4.000
ARGITARATZAILEA	Osakidetza
EGILEAK	Osakidetzaren Euskara Zerbitzua Elhuyar Aholkularitza
DISEINUA	Síntesis
INPRIMATZAILEA	Irudi
L.G.	

Agurra

Euskararen ezagutzak nabarmen egin du gora azken hamarkada hauetan. Euskararen erabilerak ere gora egin du; ez, ordea, ezagutzaren neurri berean. Ezagutza eta erabilera ez dira gauza bera. Erabilerak nekez egingo du aurrera zerbitzuen eskaintza zabaldu ezean, eta baldintza horrek, euskal gizarte osoari bezala, Osakidetza ere bete-betean eragiten dio. Hizkuntza-ohiturak aldatzea, baina, ez da erraza.

Hausnarketa hori bat dator Osakidetza Euskara Planaren lehenengo hirurtekoari buruzko (2005-2008) ebaluazio-txostenean jasotako ondorioekin. Euskaraz jakinda ere, hizkuntza-eskakizuna gaituta ere, sarritan erdaraz erantzuten zaio paziente edo erabiltzaileari. Zergatik? Arrazoi asko egon litezke tartean, hala nola, osasunari buruzko hiztegia ondo ez ezagutzea, ohiko elkarrizketak aurrera eramateko segurtasun falta, dokumenturen bat betetzerakoan okerren bat egiteko beldurra...

Gida honek gabezia horiek gaitutzeko laguntza ematea du helburu; zalantzaren bat, galderaren bat edo hutsuneren bat dagoenean laguntza eskaintzea. Beraz, eskura edukitzea komeni da beti. Lehen Mailako Arretan hasi gara, eta hiru liburuxka osatu ditugu guztira: Pediatriakoa, Harrerakoa eta Medikuntza Orokorrekoa, baina gehiago ere etorriko dira aurrerantzean.

Osakidetza Euskara Zerbitzutik jasotako irizpideei jarraiki, Elhuyar Aholkularitzak hartu ditu sortze-lanak bere gain, eta, langintza horretan, Lehen Mailako Arretako hainbat profesionalen ezinbesteko laguntza izan du. Eskerrak eman nahi dizkiegu batzuei eta besteei, baita zeuri ere, lankide, gidaliburu hau esku artean hartu duzulako.

Osakidetza Euskara Zerbitzua

Eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau gauzatzen lagundu duten Osakidetzako langile guztei, bereziki materiala egiten hasi aurretik elkarriketatu genituen harreragileei, beraien laguntza eta ahaleginik gabe ezingo genuen-eta material hau osatu.

Josune Zubeldia	Tolosako Osasun Zentroko harreragilea
Ainhoa Igerategi	Villabonako Osasun Zentroko harreragilea
Iñigo Iraeta	Ibarrako Osasun Zentroko harreragilea
Jose Mari Santos	Lasarteko Osasun Zentroko harreragilea
Joseba Barriola	Iztietako (Erreterria) Osasun Zentroko harreragilea
Igor Goikoetxea	Zarauzko Osasun Zentroko harreragilea



HELBURUAK

Osakidetzako euskararen erabileraren normalizazioa arautzen duen 67/2003 Dekretuak ezarri zuenez, paziente eta erabiltzaileak artatzeko harrera-zerbitzu guztiak elebidunak izan behar dira, hala Lehen Mailako Arretan nola Arreta Espezializatuan.

ERABILERA-IRIZPIDEAK**ERAKUNDEAREN IDENTITATEA**

Osakidetzaren irudi korporatiboa adierazten duten testu eta elementu grafikoak, euskarria edozein izan arren (logotipoak, idazpuruak, zigiluak, inprimakiak, liburuxkak, kartelak, zentroen izenak, errotiluak, etab.) ele bitan egon behar dira.

Goian adierazten diren elementu horietako bat ele bitan ez dagoela ikusten baldin bada, unitateko arduradunari jakinaraziko zaio, eta berak dagokion arduradunari.

ZERBITZU-HIZKUNTZA**IDENTIFIKAZIO GRAFIKOA**

Komenigarria da zerbitzu elebiduna eskaintzen duen langilea identifikatzea, pin edo mahai gainekoaren bitartez.

AHOZKO JARDUERA**Atentzio zuzena:****Hasierako agurra euskaraz bakarrik****1.- Langile elebiduna:**

(Bezzeroaren aukera linguistikoa ezaguna bada, bezzeroari berak aukeratutako hizkuntzan hitz egingo zaio).

Bezzeroaren aukera linguistikoa ez bada ezaguna, agurrak eta sarrera-hitzak euskaraz bakarrik erabil daitezke, bezzeroari euskara aukeratzea errazteko.

Adibidez: Egun on, zer nahi duzu?

2.- Langile elebakarra:

Bezzero batek euskaraz egiten badio ez dakien langile bati:

A- Unitatean bezzeroa euskaraz artatzeko norbait badago:

Langileak euskaraz ez dakiela esango dio bezzeroari (begirunez), eta beste langile batek artatuko duela esango dio.

B- Unitatean bezzeroa euskaraz artatzeko inor ez badago:

Langileak euskaraz ez dakiela esango dio bezzeroari (begirunez), eta ezin izango dutela euskaraz jardun. Bezzeroak kexa aurkeztu nahi badu, non eta nola bideratu ere azalduko dio.

Telefonoa:

Hasierako agurra euskaraz bakarrik edo ele bitan

1.- Langile elebidunentzat:

Bezeroaren aukera linguistikoa ezagutzen ez denez, agurrak eta sarrera-hitzak euskaraz bakarrik erabil daitezke, bezeroari euskara aukeratzea errazteko.

Adibidez: Osakidetza, egun on. Zer nahi duzu?

2.- Langile elebakarra:

Agurrak euskaraz eta sarrera-hitzak gaztelaniaz erabil daitezke.

Adibidez: Osakidetza, egun on. ¿Qué desea?

Erantzungailua eta megafonia:

Agurrak euskaraz, eta mezua lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.

➔ **IDATZIZKO JARDUERA**

Bezero edo pazienteentzako edozein dokumentu ele bitan ez dagoela ikusten baldin bada, unitateko arduradunari jakinaraziko zaio.

1.- Langile elebidunentzat:

Agiri jakin bat bete baino lehen, bezeroari galdetu behar zaio zein hizkuntzatan nahi duen.

2.- Langile elebakarra:

Bezero batek agiria euskaraz betetzea nahi izanez gero, langileak ahozko egoeran bezala jokatu behar du.



1	ELKARRIZKETAK	7
1.1	Kortesiazo adierazpenak / Datu pertsonalak eskatzea	8
1.2	Harrera telefonoz	10
1.3	Hitzorduak	13
1.4	Erreklamazioak	15
1.5	Osasun Txartel Indibiduala (OTI)	15
1.6	Bertaratze-agiriak	16
1.7	Medikua aukeratzeko eskabidea	16
1.8	Historia klinikoa eskuratzeko eskabidea	17
1.9	Hirugarrenentzako fakturazioa	17
1.10	Zerbitzuei buruzko informazioa	17
1.11	Mugimenduak zentro barruan	18
1.12	Hainbat azalpen	21
2	ONARRIZKO HIZTEGIA	27
2.1	Zerbitzuak	28
2.2	Ohiko gaixotasunak	29
2.3	Gorputz-atalak	30
2.4	Gorputz-organoak	31
2.5	Eskeletoa	31
2.6	Probak, analisiak, ebakuntzak	32
3	HIZTEGI ESPEZIFIKOA	33
3.1	Laneko ohiko hiztegia	33
3.2	Gorputz-atalak	34
3.3	Gorputz-organoak	36
3.4	Eskeletoa	37
4	MATERIAL LAGUNGARRIA	38

1.- ELKARRIZKETAK

Gidari hasiera emateko, eta erabiliko duen pertsonari lagungarri izango zaiolakoan, euskararen erabilerarako Osakidetzaren irizpideak eta hainbat gomendio erantsi ditugu:

- Garrantzitsua da **lehen hitzak euskaraz** egitea: euskaldunari atea irekiko diogu euskaraz jarrai dezan.
- Saiatu **euskara hurbila** erabiltzen. Ahal baduzu egokitu hizkera solaskidearen arabera. Hizkera naturala eta ulerterraza erabili. Adibidez, solaskidearen euskalkia jakinez gero, euskalkia erabili.
- **Ez erabili hitanorik**, solaskidea hasi ezean behintzat.
- Solaskidearengandik **urrun** egonez gero, hurbildu berarengana.
- **Irribarreak** harremanak gozatzen eta errazten ditu.
- Medikuek joan dena zerbait jakitera, eskatzera, esatera joan da. Utzi azaltzen eta hitz egiten, aurreiritziak baztertu eta **entzun**.
- **Pazientzia izan**. Guretzat jakina eta erraza denak ez dauka zertan berdin izan guztientzat.
- **Ez itsutu zuzentasunarekin**. Esaldi bat erraz eta zuzen ulertzeak garrantzi handiagoa du gramatika-arau guztiak ondo betetzeak baino.
- Tarteka, **“lizentziaren bat”** hartzea hobe da dena gaztelaniaz egitea baino.
- **Erabili hitz ezagunak eta ulerterrazak**. Hiztegia ez dadila oztopo izan. Izan beti buruan pazientea, eta erabili hitz ezagunak, gertuenak.

1.1 Kortesiak adierazpenak / Datu pertsonalak eskatzea

Agurrak egiteko

Lehen agurra

- Kaixo.
- Egun on (goizean).
- Eguerdia on (eguerdian).
- Arratsalde on (arratsaldean).
- Gabon (gauean).

Lehen agurrari erantzuteko

- Berdin.
- Baita zuri ere.
- Bai, egun on (eguerdia on, arratsalde on edo gabon).

Amaierako agurrak

- Nahi duzun arte.
- Agur.
- Ondo da.
- Ondo segi.
- Hurrengo(ra) arte.
- Ikusi arte.
- Gero arte.

Ondo jarrai dezan opatzeko

- Ondo segi.
- Egun ona igaro.
- Ondo ibili.
- Ondo izan.

Eskerrak emateko eta erantzuteko formulak

- Eskerrik asko.
- Mila esker.
- Ez dago zergatik.
- Ez horregatik.



Datu pertsonalak eskatzeko

- Izen-abizenak, mesedez.
- Zeintzuk dira zure izen-abizenak?
- Nola/zelan duzu izena?
- Esan, mesedez, zeure datuak: izen-abizenak, adina...
- Zeure datuak emango dizkidazu, mesedez?
- Zenbat urte dituzu?
- Noiztik bizi zara hemen?

Hona hemen datu pertsonalak eskatzeko fitxaren eredua:

Izena	Abizenak	Jaiotza-data	Jaioterria
Ane	Lizarribar Zubeldia	1980-12-20	Donostia
Sexua	Telefonia	Telefono mugikorra	Faxa
Gizonezkoa	944 236 545	666 566 661	944 236 544
Emakumezkoa			
Posta elektronikoa	Lanpostua	Adina	NAN
xaa@euskaltel.com	Idazkaria	30	223344999
Kalea	Zenbakia	Solairua	Aldea
Kale Nagusia	22	6.a	Eskuina
Posta kodea	Herria	Herrialdea	
22490	Donostia	Gipuzkoa	

1.2 Harrera telefonoz

Hainbat gomendio

- Telefono-deia hartzean, **erantzun euskaraz**: euskaldunari euskaraz jarraitzeko aukera emango diozu.
- Solaskidea ezagutu eta berarekin konfiantzarik izan ezean, **ez erabili hitanorik**.
- **Irribarretsu** baldin bazaude, solaskideak igarri eta eskertu egingo du.
- **Hitz garrantzitsuak azpimarratu** edo errepikatu.
- Solaskideari **utziozu hitz egiten** eta beharrezko galdera guztiak egiten.
- Asko hitz egin behar baldin baduzu, **aldatu intonazioa eta erritmoa**.
- Telefonoz ez da ikusten keinurik; horregatik, aurrez aurre baino **astiroago hitz egin** behar da.
- Telefono-zenbakirik eman behar baldin baduzu, **zenbakiak banan-banan** ematea komeni da:

SAIHESTU KOPURU HANDIAK

943 55 85 37
bederatziehun eta berrogeita hiru - berrogeita
hamabost - laurogeita bost - hogeita hamazazpi.

ESAN ZENBAKIAK BANAN-BANAN

943 55 85 37
bederatzi-lau-hiru, bost-bost, zortzi-bost,
hiru-zazpi.

Hasierako agurra

- Telefona hartzean, lehenengo esaiozu solaskideari nora deitu duen, eta ondoren egizu kortesiazko agurra:

Lasarteko Osasun Zentroa, egun on
Gernikako Anbulatoria, bai esan?
Gurutzetako Ospitalea, arratsalde on

- Hasierako agurrari buruzko protokolo bat finkatzeak asko laguntzen du, horrela erabaki egiten baita zein izango den erabiltzaileak agurtzeko era formal egokia.

Zure unitatean protokolorik ez baduzue, proposatu zerbitzuburuari.

Telefono bidezko erantzunak

Itxarotea eskatzeko

- Itxaron apur bat(ean), mesedez.
- Zaude pixka batean, arren.
- Orain beste telefono batetik (hitz egiten) ari da. Bost minutu barru deituko duzu?
- Bai, segundo bat.

Deia beste norbaiti pasatzeko

- Oraintxe jarriko/paratuko da.
- Orain pasako dizut deia.
- Momentu bat, mesedez.
- Oraintxe jarriko zaitut berarekin.

Norbait ez dagoela esateko (eta mezua hartzeko)

- Une honetan ez dago hemen. Enkargurik ematea nahi duzu?
- Orain kanpoan da. Mezuren bat-edo utzi nahi diozu?
- Sentitzen dut, baina kanpora irten da. Zerbait esatea nahi duzu?
- Bilera batean dago. Abisurik ematea nahi duzu?
- Gaur ez da etorriko. Deitu bihar, mesedez.
- Ez du erantzuten. Bost minutu barru deituko duzu berrir?

Hitzordua emateko

- Esan zeure izen-abizenak, mesedez.
- Bihar goizean, adibidez, ondo datorkizu? Zer ordutan?
- Noizko nahi duzu hitzordua?

Nahastu egin dela esateko

- Barkatu, baina nahastu egin zarela uste dut.
- Ez, nahastu egin zara; hau osasun-zentroa da.
- Ez, ez da hemen; osasun-zentrora deitu duzu.



Telefonoz hobetzekoak

Akatsik arruntena gaztelaniazko zenbait egituraren kalko okerrak egitea izaten da. Honako egiturokin ibili behar dugu adi:

- Aditzetan, ez erabili ohiturazko orainaldia geroaldia behar duen lekuan:

SAIHESTU

- Utzi niri enkargua, eta gero esaten diot nik.
- Oraintxe jartzen da.

ESAN HOBETO HONELA

- **Utzi niri enkargua, eta gero esango diot nik.**
- **Oraintxe jarriko da.**

- Norbait bilera batean dagoela esatean...

SAIHESTU

- Bilduta dago.

ESAN HOBETO HONELA

- **Bilera batean dago.**
- **Bilera batean daude / Bilduta daude / Batzartuta daude.**

- Norbaiti deitu eta berataz galdetzean, ez ahaztu NON kasua:

SAIHESTU

- Bago Mikel?
- Mikel dago?

ESAN HOBETO HONELA

- **Kaixo, Mikel hor al da? / Hor dago Mikel?**
- **Mikel Gomez etxean da(go)?**

Bestela:

- **Mikel Gomezekin hitz egin dezaket?**
- **Kaixo, Mikel Gomezekin hitz egin nahi nuke.**

1.3 Hitzordua

Harrera egiteko galderak

- Egun on, zer nahi/gura duzu?
- Kaixo, egun on.
- Bai, esan.
- Kaixo, zer behar duzu?
- Hitzordua hartu nahi al duzu?
- Laguntzarik behar duzu?
- Zer edo zertan laguntzea nahi duzu?

Zerbait ulertzen ez denean

- Barkatu, ez dizut ulertu.
- Barkatu, ez dizut ondo entzun.
- Nola/zelan esan duzu?
- Errepika dezakezu, mesedez?
- Astiro, mesedez, euskara ikasten nabil eta.
- Euskara ikasten nabil, baina segi euskaraz lasai.

Erabiltzaileak hitzordua hartu nahi du

- Hitzordua/txanda hartu nahi dut Lasa doktorearekin.
- Lasa medikuarekin hitz egin behar dut.



Hitzordua emateko edo berritzeko

- Martxoaren 21ean, goizeko hamaiketan. Hemen daukazu idatzita.
- Nahi baduzu, gaur bertan, arratsaldeko hiruretan.
- Bihar lehenengo orduan, zer moduz?
- Gaur zortzi, adibidez, ondo datorkizu?

Ezinezkoa da hitzordua zehaztu

- Ezinezkoa da, bajan dago eta.
- Irailera arte ezin izango zara berarekin egon, oporretan dago eta.
- Gaixorik dago, gaur ez da etorri. Deitu bihar badaezpada.
- Geroago etorriko da.
- Sentitzen dut, gaur ezinezkoa da.

Erabiltzaileak hitzordua aldatu nahi du

- Hitzordua daukat hamabietan Lasa medikuarekin, baina ezin izango naiz etorri. Emango al didazu beste egun baterako?

Hitzordu aldaketa

- Eskerrik asko abisatzeagatik. Bihar hiruretan ondo?
- Hilaren 30era arte ezin dizut ordurik eman. Zer deritzozu?

Mediku espezialisten kontsultetarako hitzordua eskatzeko jarraibideak

- Zure telefono-zenbakia egiaztatuko dugu. Horrela, beraiek deituko dizute zuzenean.
- Lasai egon, egun batzuk barru deituko dizute eta.

Hainbat proba berezietarako hitzordua eskatzeko jarraibideak

- Hemen duzu telefono-zenbakia. Deitu eta eskatu proba egiteko hitzordua.
- Tori telefono-zenbakia. Zeuk deitu behar duzu ordua eskatzeko.



1.4 Erreklamazioak

Erabiltzaileak erreklamazioa egin nahi du	Erreklamazioari buruzko argibideak
● Kaixo, kexa bat jarri nahi dut. ● Erreklamazio-orririk emango didazu, mesedez? ● Ez nago oso konforme medikuak esan didanarekin. Non jar dezaket erreklamaziorik? ● Oso haserre nago medikuak esan didanarekin. Kexa bat idatzi nahi dut. ● Ez dut onartzen kontsultan gertatu dena. Erreklamazioa jarri nahi dut. ● Erreklamazioa idatziz egin behar da?	● Bete erreklamazio-orrria eta ekarri berriro hona, mesedez. ● Idatz ezazu zeure kexa orri honetan, eta idatziz erantzungo dizute. ● Bai, nik ulertzen zaitut, baina ez naiz medikua. Beraz, egin ezazu erreklamazioa eta zurekin jarriko dira harremanetan. ● Erreklamazioak idatziz egin behar dira.

1.5 Osasun Txartel Indibiduala

Erabiltzaileak osasun txartela eskatu edo berritu nahi du	Osasun txartelari buruzko argibideak
● Haurrentzat txartel berria egin nahi dut. Zer egin behar dut? ● Poltsa lapurtu didate eta bertan neukan Osakidetza txartela. Berria egin nahi nuke. ● Erretiroa hartu dudanez, txartela aldatu nahi dut.	● Osasun txartel berria egiteko, agiri hauek ekarri behar dituzu: familia-liburuaren fotokopia, elkarbizitza-ziurtagiria eta Gizarte Segurantzako zenbakia. ● Lapurreta kasuetan, beharrezkoa da salaketa-agiria, NANaren fotokopia, errolda-ziurtagiria eta Gizarte Segurantzako zenbakia. ● Erretiratuok hiru agiri ekarri behar dituzue: errolda-ziurtagiria, Gizarte Segurantzako zenbakia eta erretiroaren gaineko ebazpena. ● Osasun txartela egiten den bitartean, behin-behineko txartel hau erabil dezakezu. Behin betikoa etxera bidaliko dizute postaz.

1.6 Bertaratze-agiriak

Erabiltzaileak bertaratze-agiria nahi du

- Bertaratze-agiria behar dut, lanerako. Hemen egingo didazue?
- Bertaratze-agiria egiteko, mesedez?

Datuak eskatzeko

- Zure izen-abizenak, mesedez?
- NANA utziko didazu, mesedez?
- Zein medikurekin egon zara?
- Nor da zure medikua?
- Noiz etorri zara medikuarenera?
- Zu etorri zara medikuarengana ala norbait(i) laguntzera etorri zara?

Agiria emateko

- Hemen duzu agiria.
- Tori agiria. Hemen jartzen du aita(ri) laguntzera etorri zarela.

1.7 Medikua aukeratzeko eskabidea

Erabiltzaileak medikua aldatu nahi du

- Medikua aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?
- Medikua aldatu nahi nuke. Aukerarik dago?
- Arratsaldeko mediku bat gura dut, posible bada.
- Goizez kontsultara etortzeko arazoak ditut, eta arratsaldeko mediku bat aukeratu nahi dut.
- Gurasoen medikua aldatzea nahi dut, eurek ere nirea izan dezaten.
- Mediku euskalduna nahi nuke.

Beste mediku bat esleitzeko

- Hauek dira aukeratu ditzakezun medikuak: Legorreta andrea, Zabala andrea eta Gomez jauna. Zein aukeratu nahi duzu?
- Libre dauden medikuak bi baino ez dira: Lasa jauna eta Gutierrez andrea. Nor nahi duzu?
- Euskaraz hitz egiten duten medikuak bi dira: Lasa jauna eta Gutierrez andrea.

Erabiltzaileak beste mediku baten iritzia nahi du

- Ez nago pozik medikuak esandakoarekin. Beste mediku baten iritzia nahi nuke.
- Posible al da beste mediku baten iritzia jasotzea? Kezkatuta nago eta beste mediku baten iritzia ere entzun nahi nuke.

Beste mediku baten iritzia eskatzeko

- Bi mediku dituzu aukeran: Lasa jauna eta Gutierrez andrea. Zein nahiago duzu?
- Gomez andreak ikusiko zaitu.
- Sinatu hemen, mesedez.

1.8 Historia klinikoa eskuratzeko eskabidea

Erabiltzaileak historia klinikoa nahi du	Historia klinikoaren eskaerari erantzuteko
● Neure historia klinikoa behar dut. Nola/zelan eskatu behar da? ● Zer egin dezaket semearen historia klinikoa eskuratzeko? ● Historia klinikoa eraman behar dut erietxe batera. Hemen egiten da eskabidea?	● Inprimaki hau bete behar duzu eta behean sinatu. Geuk bideratuko dugu eskaera. ● Inprimaki honetako datuak bete itzazu, mesedez, eta geu arduratuko gara behar den lekura bidaltzeaz. ● Prest dagoenean, abisatu egingo dizugu.

1.9 Hirugarrenentzako fakturazioa

Erabiltzaileak lan edo auto istripuaren osteko izapideak egin nahi ditu	Istripuen izapideei buruz erantzuteko
● Egun on, lehengoan istripua izan nuen, eta aseguru-etxeak paper hau bete dezazuen eskatu dit. ● Kaixo, istripu baten ondoren larrialdietan egon nintzen, eta aseguru-etxeak hau eman dit zuek betetzeko.	● Bai, esan mesedez zeure izen-abizenak. ● Noiz izan zen istripua? ● Zer ordutan ekarri zintuzten larrialdietara?

1.10 Zerbitzuei buruzko informazioa

Erabiltzaileak zerbitzuei buruzko informazioa nahi du	Zerbitzuei buruzko informazioari erantzuteko
● Zer ordutan dauka kontsulta Zabala medikuak? ● Espirometriako emaitzak berehala ematen dituzte? ● Arratsalderako daukat medikuaren kontsulta, baina oso txarto nago. Posible da orain beste mediku batek ikustea?	● Alonso doktorea goizez egoten da, bederatzietatik ordu batera. ● Arratsaldeko txanda dauka, hiruretatik bederatzietara. ● Emaitzak berehala emango dizkizute, proba bukatu eta jarraian. ● Esan zeure izen-abizenak, eta Zabaleta medikuaren zerrendan sartuko zaitut. ● Zoaz lehenengo solairura, Goñi doktorearen kontsultara.

1.11 Mugimenduak zentro barruan

<u>Erabiltzaileen galderak zerbitzuen kokapenari buruz</u> ● Kaixo, zenbatgarren solairuan dago Pediatria? ● Barkatu, haurdunei non egiten diete azukrearen proba? ● Zein tokitan daude emaginak? ● Non egiten dira X izpien probak?	<u>Zerbitzuen kokapenari buruzko erantzunak</u> ● Bigarren solairura igo eta jo ezazu ezkerretara, pasilloaren amaieraraino. ● Hemen behean, 12. atean. ● Lehenengo solairuan, Ginekologiaren ondoan. ● Hirugarren pisuan, pasilloaren bukaeran.
<u>Erabiltzaileen galderak anbulatorio batzuetako zerbitzuei buruz</u> ● Barkatu. esango didazu mesedez Dermatologia non dagoen? ● Egun on, zer solairutan dago Ramirez kardiologoa? ● Traumatologiako kontsultara joateko, mesedez?	<u>Anbulatorio batzuetako zerbitzuei buruzko erantzunak</u> ● Bosgarren solairuan, Harreraren ondoan. ● Igo zaitez laugarren pisura, eta Digestio Aparatua ikusten duzunean, galde ezazu berriro. ● Beheko solairura jaitsi behar duzu eta eskuinetara jo.
<u>Erabiltzaileen galderak Ospitalez Kanpoko Osasun Mentalari buruz</u> ● Barkatu, non dago Helduen Psikiatria? ● Terapia Okupazionalak zer ordutegi dauka? ● Toxikomanietara joateko, mesedez?	<u>Ospitalez Kanpoko Osasun Mentalari buruzko erantzunak</u> ● Igo zaitez hirugarren solairura, eta bukaeran ikusiko duzu, eskuineko atean. ● Orain ez dago inor. Goizez egoten dira, bederatzietatik ordu batera. ● Laugarren solairura igo, eskuineko pasillotik segi eta aurrez aurre topatuko duzu.

Mugimenduak azaltzeko

Osasun-zentrorra doanarentzat Harrera da gehienetan eraikinean ikusten edo aurkitzen duen lehen lekua, eta hara jotzen du informazio eske. Horregatik, Harreran mota askotako informazioa eman behar izaten dugu paziente edo erabiltzaileak joan behar diren tokira ondo bideratzeko, eta azalpen-lan horretan garrantzi berezia dute **leku-nozioek, denbora-nozioek eta aginterak.**

LEKU-NOZIOAK

Zerbitzu edo medikuren bat non dagoen galdetzen digutenean, espazioan orientatzeko azalpenak edo argibideak ematen ditugu normalean: ezker-eskuin, goi-behe, gain-azpi, aurre-atze, pare, erdi, hasiera-bukaera... Leku-nozio horiek erabiltzeko orduan, garrantzi berezia daukate deklinabide-kasu batzuek: nondik, nora, non eta noraino.

Harreran egon behar duenarentzat, beraz, premiazkoa da leku edo espazio-nozioen inguruko zalantzak uxatzea, ongi ezagutzea eta aberasten joatea.

Era berean, asko lagundu dezakete osasun-zentroko plano bat edukitzeak eta bertan leku bakoitzari gaztelaniaz eta euskaraz nola esan behar zaion argi azaltzeak. Horrek segurtasun handia eman lezake.

DENBORA-NOZIOAK

Norbait nonbaitera bideratzeko, batzuetan denbora-nozioak ere erabili behar izaten ditugu, baita, haiekin batera, ordinalak ere: lehenengo, ondoren, aurretik, -tzean, azkenik... Lagungarria da nozio horien erabilera-eremuak ongi ezagutzea, hau da, bakoitzak zer esan nahi duen eta nola erabiltzen den jakitea.

AGINTERA

Eskatzaileari argibideak emateko edo norabait bideratzeko, agintera erabili ohi da. Euskaraz agintera zenbait eratara adieraz daiteke:

Aditz partizipioarekin	Joan eskuinaldeko atera
Adizki perifrastikoekin	Joan zaitez eskuinaldeko atera
Adizki trinkoekin	Zoaz eskuinaldeko atera
“Behar” erabilita	Eskuinaldeko atera joan behar duzu

“Behar” izan ezik, aginduak emateko forma guztiak esaldiaren hasieran kokatzen dira, bai ahoz bai idatziz.

Harreretako azalpenetan, ondoko aditzak erabiltzen dira gehienbat aginteran: joan, hartu, igo, jaitsi, sartu, pasa(tu), jo, ibili, segi, gelditu...

● **Zenbait zalantza argitu nahian**

- “ezkerrean” / “eskuinean” - “ezkerreko” / “eskuineko” baina: - “ezkerretara” / “eskuinetara” - “ezkerretatik” / “eskuinetatik”	NORA eta NONDIK kasuetan mugagabea erabiltzen da.
- “gelan sartzera” - “gelan sartzean” - “gelan sartutakoan”	- “gelan sartzera” = gelan sartzera zozenean, sartzera zozen unea, sartu baino apur bat lehentxeago, baina sartzera zozela. - “gelan sartzean” = sartzan ari zarenean, edo sartu eta segituan. - “gelan sartutakoan” = behin gelara sartuta, sartu orduko.
- “bertan”, “bertoko”, “bertora”, “bertotik”	“Bertan” leku-adberbio indartuaren aldaera dugu “bertan”, eta mendebaldean erabiltzen da gehienbat, hurbiltasuna nabarmentzeko. Horregatik, inoiz ez da erabiltzen “han”, “hara”, “handik” edo “hango” adierazteko. Adibidez: - “hemen(txe) bertan” / “hemen(txe) bertan” - “hor(txe) bertan” / “hor(txe) bertan” - Baina: “han(txe) bertan” - “bertora” (= “hona”) - “bertoko” (= “hemengo”) - Baina: “bertako” (= “hango”)
Nola esaten da euskaraz “hall”?	“hall” / “atondo”. Baina “sarrera” ere (“<i>entrada</i>”) erabiltzen da.
Nola esaten da euskaraz “<i>al fondo del pasillo</i>”?	“pasilloaren amaieran” / “korridorearen bukaeran” / “korridorearen azkenean” “hondo”, berriz, leku eta gauza sakonekin erabiltzen da: “itsas hondoa”, “edalontziaren hondoa”, etab.
Nola esaten da euskaraz “<i>a la altura de...</i>”?	“-ren parean” / “-ren ondoan” / “-ren inguruan”

1.12 Hainbat azalpen

A) ORDUAK ADIERAZTEKO

Zer ordu da?	Zer ordutan?
13:00 ordu bata (da)	ordu batean
14:00 ordu biak (dira)	ordu bietan
15:00 hirurak	hiruretan
16:00 laurak	lauretan
17:00 bostak	bostetan
18:00 seiak	seietan
19:00 zazpiak	zazpitan
20:00 zortziak	zortzietan
21:00 bederatzia	bederatzietan
22:00 hamarrek	hamarretan
23:00 hamaikak	hamaiketan
24:00 hamabiak	hamabietan

-rak eta -retan amaierak “hiru” eta “lau” zenbakiekin (pluralean); bestela, -ak eta -etan. Adibidez: “hirurak”, “lauretan”..., baina “seiak”, “zortzietan”...

ZENBAIT MINUTU GEHIAGO ADIERAZTEKO

Zer ordu da?	Zer ordutan?
ordu bata eta bost	ordu bata eta bostean
ordu biak eta hamar	ordu biak eta hamarrean
hirurak eta hoge	hirurak eta hogeian
laurak eta hogeita bost	laurak eta hogeita bostean

“ETA LAURDEN”, “ETA ERDIAK” ADIERAZTEKO

Zer ordu da?	Zer ordutan?
ordu bata eta laurden / ordu bat eta laurdenak	ordu bata eta laurdenetan / ordu bat eta laurdenetan
ordu biak eta laurden / ordu bi eta laurdenak	ordu biak eta laurdenetan / ordu bi eta laurdenetan
hirurak eta laurden / hiru eta laurdenak	hirurak eta laurdenetan / hiru eta laurdenetan
ordu bat eta erdiak	ordu bat eta erdietan
ordu bi eta erdiak	ordu bi eta erdietan
hiru eta erdiak	hiru eta erdietan

ZENBAIT MINUTU GUTXIAGO ADIERAZTEKO

Zer ordu da?		Zer ordutan?
08:45	bederatziak laurden gutxi(ago) / zortziak eta berrogeita bost	bederatziak laurden gutxi(ago)tan / zortziak eta berrogeita bostean
12:35	ordu bata hogeita bost gutxi(ago) / hamabiak eta hogeita hamabost	ordu bata hogeita bost gutxi(ago)tan / hamabiak eta hogeita hamabostean
17:40	seiak hogeit gutxi(ago) / hamazazpiak eta berrogei	seiak hogeit gutxi(ago)tan / hamazazpiak eta berrogeian
19:50	zortziak hamar gutxi(ago) / hemeretziak eta berrogeita hamar	zortziak hamar gutxi(ago)tan / hemeretziak eta berrogeita hamarrean

ZER ORDU ARTE? / ZER ORDUTARA ARTE?

ordu bata arte / ordu batera arte

ordu bi eta erdiak arte / ordu bi eta erditara arte

ZER ORDUTATIK ZER ORDUTARA?

hamarretatik ordu batera

zortzietatik ordu bietara

ORDUA ZENBAKI BIDEZ

Orduak zenbaki bidez idatzi nahi direnean, minutuak eta segundoak bina digituz bereizi behar dira eta tartean bi puntu jarri.

Adibidez: 10:00-13:30

Deklinatuta jarri behar badira, berriz, orduak pluralean deklinatuko dira (15:00etan) eta minutuak singularrean (15:30ean)

15:00etan
15:50ean
20:30ean
22:15ean
08:00etatik 14:00etara
08:30etik 12:30era
12:00ak arte / 12:00etara arte

B) DATA ADIERAZTEKO

Data idazteko modurik erabilgarrienak eta gomendagarrienak honakoak dira:

- 2011ko ekainaren 25a
- 2011ko ekainaren 25ean

Eta toki-izena erantsi nahi badugu:

- Donostia, 2011ko ekainaren 25a
- Donostian, 2011ko ekainaren 25ean

Horrez gainera, data testu baten barruan adierazi behar denean beste aukera bat ere badago: ekainak 25. Forma hori, ordea, koma artean eta deklinatu gabe erabili behar dugu beti:

Adibidez: San Pedro egunean, **ekainak 29**, osasun-zentroa itxita egongo da arratsaldean.

DATA DEKLINATUTA

Edozein izen bezala deklinatzen dira zenbakiak ere, eta zifren atzetik tarterik utzi gabe eransten zaie deklinabide-atzizkia:

8an, 24ko, 19k, 2008rako, etab.

Data osorik idatzi behar ez dugunerako, hona hemen zenbait ohar:

- Urtea eta hila: 2004ko abendua / 2007ko abenduan / 2010eko abendutik / 2011ko abendura...
- Urteak eta egunak deklinatzeko, kontuan eduki behar da zenbakia kontsonantez ala bokalez amaitzen den, eta esan bezalaxe idatzi behar da:
2013ko, 2014ko, 2015eko, 27ko, 11ko, 5eko ...

Hona hemen zenbait kasu lagungarri:

NOIZ	2011n	2014an	2005ean	2016an	2017an
NOIZKO	2011ko	2014ko	2005eko	2016ko	2017ko
NOIZTIK	2011tik	2014tik	2005etik	2016tik	2017tik
NORA	2011ra	2014ra	2005era	2016ra	2017ra
NOIZ ARTE	2011(ra) arte	2014(ra) arte	2005(era) arte	2016(ra) arte	2017(ra) arte

DATA ZIFRA HUTSEKIN

Inprimaki, txartel, jendearentzako ohar eta abarretan, data zifra hutsekin jarri ohi da. ISO erakundeak horretarako emandako arauak betetzen dira nazioartean. Arau horien arabera (euskarak berak ere eskatzen duen moduan), data honako hurrenkeran idatzi behar da: urtea/hila/eguna.

Adibidez: 2005-02-13
2005/02/13

Oharra: Hobe da urtea lau zifrekin idaztea, bestela ulergarriak ez diren edo nahasgarriak diren datak sor daitezke eta: 11-02-12

C) ZENBAKIAK

KARDINALAK

0	zero / huts (kiroletan-eta)	30	hogeita hamar
1	bat	40	berrogei
2	bi	50	berrogeita hamar
3	hiru	60	hirurogei
4	lau	70	hirurogeita hamar
5	bost / bortz	80	laurogei
6	sei	90	laurogeita hamar
7	zazpi	100	ehun
8	zortzi	101	ehun eta bat
9	bederatzi	200	berrehun
10	hamar	300	hirurehun
11	hamaika	400	laurehun
12	hamabi	500	bostehun
13	hamahiru	600	seiehun
14	hamalau	700	zazpiehun
15	hamabost	800	zortziehun
16	hamasei	900	bederatziehun
17	hamazazpi	1.000	mila
18	hemezortzi / hamazortzi	1.200	mila eta berrehun
19	hemeretzi	1.201	mila berrehun eta bat
20	hogei	1.000.000	milioi bat
21	hogeita bat	10.000.000	hamar milioi

- Hogeitik ehunerainoko zenbakiak honela idatziko dira:

41: berrogeita bat

69: hirurogeita bederatzi

97: laurogeita hamazazpi

- Ehunekoak lotuta idatziko dira:

300: hirurehun

500: bostehun

800: zortziehun

- Milakoak bananduta idatziko dira:

4.000: lau mila

47.000: berrogeita zazpi mila

91.000: laurogeita hamaika mila

- Ehunetik milarainoko zenbakiak aurreko arauen arabera idatzi behar dira, ehunekoak ostean "eta" ipinita:

225: berrehun eta hogeita bost

579: bostehun eta hirurogeita hemeretzi

908: bederatziehun eta zortzi

- Milatik gorako zenbakiak idazteko, irizpide bera:

1.003: mila eta hiru

3.456: hiru mila laurehun eta berrogeita hamasei



ORDINALAK (ZENBATGARREN?)

Ordinaletan -GARREN atzizkia eranstean diogu zenbakiari: **bosgarren, bigarren, hogeita zazpigarren...**

Gainera, -GARREN atzizkiaren ikurra puntua da. Beraz, zenbakia zifraz idazten denean -GARREN esango litzatekeen tokian puntua idazten da:

5. = bosgarren

8.a = zortzigarrena

22.etik = hogeita bigarrenetik

Idazteko arauak kardinalentzat emandako berberak dira, -GARREN atzizkia erantsita.

1. lehenengo, lehen, lehenbiziko	7. zazpigarren	13. hamahirugarren
2. bigarren	8. zortzigarren	20. hogeigarren
3. hirugarren	9. bederatzigarren	21. hogeita batgarren
4. laugarren	10. hamargarren	100. ehungarren
5. bosgarren	11. hamaikagarren	1.000. milagarren
6. seigarren	12. hamabigarren	10.000. hamar milagarren

D) "AL" GALDERETAN

Galderak "al" galdetzailearekin edo galdetzailerik gabe egin daitezke, galderaren erantzuna BAI/EZ denean. "Al" galdetzailea batez ere Gipuzkoan erabiltzen da, baina batuan hautazkoa da. Gida honetan hainbat galdera "al" galdetzailearekin jarri ditugu eta beste hainbat galdetzailerik gabe.

- "Beste hitzordu bat emango didazu, mesedez?" / "Beste hitzordu bat emango al didazu, mesedez?"
- "Posible da beste mediku baten iritzia jasotzea?" / "Posible al da beste mediku baten iritzia jasotzea?"

2.- OINARRIZKO HIZTEGIA

Hainbat ohar

Hiztegitxo honetan ez daude sartuta Osakidetzako harrera-zerbitzuetan erabiltzen diren hitz guztiak, baina bai erabilienak. Hala ere, ikusiko duzuen bezala, hiztegiaren amaieran zenbait orri zuri jarri ditugu, oharrak hartzeko, iradokizunak apuntatzeko, hitz berriak idazteko... Aurrera begira, hiztegitxo hau osatzeko eta aberasteko baliagarri izango direla uste dugu.

Hitzak aukeratzeko irizpide nagusia honakoa izan da: harreretako enplegatuek eguneroko lanean sarritan erabili behar izatea.

Kasu batzuetan, hitz beraren bi ordain agertzen dira, eta horiek bereizteko barra etzana (“/”) erabili dugu. Hainbat kasutan sinonimo bat baino gehiago erabili ditugu, erabiltzaileak bere euskalkira gehien egokitzen dena hauta dezan.

Hitzen itzulpenak begiratzeko orduan, gogoratu euskarazko ordaina mugagabea agertzen dela eta esaldiak egiteko izena mugatu egin behar dela; hau da, amaierako –a erantsi behar da. Dena den, lehen taulan zerbitzuen izenak jarri ditugu, eta, errotulazioa beti mugatuta ematen denez, atal horretako hitzak mugaturik eman ditugu.



2.1 Zerbitzuak (errotulazioa)

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
aparato digestivo	aparatu digestiboa/digestio-aparatua	ginecólogo, -a	ginekologoa
área de atención al paciente	pazienteen(tzako) arreta-zerbitzua/pazienteen(tzako) atentzio-zerbitzua	matrona	emagina
asistencia a domicilio	etxeko asistentzia	medicina general	medikuntza orokorra
atención especializada	arreta espezializatua/atentzio espezializatua	médico de familia	familia-medikua
atención primaria	lehen mailako arreta/lehen mailako atentzioa	odontología	odontologia
atención urgente	arreta urgentea/ atentzio urgentea	oftalmología	oftalmologia
botiquín	botikina	optometrista	optometrista
cardiología	kardiologia	otorrinolaringología (ORL)	otorrinolaringologia (ORL)
cirugía	kirurgia	pediatría	pediatria
cura	sendaketa	psicólogo	psikologoa
dermatología	dermatologia	psiquiatra	psikiatra
endocrinología	endokrinologia	psiquiatría de adultos	helduen psikiatria
enfermería	erizaintza (lanbidea); erizaindegia (lekua)	psiquiatría infantil y juvenil	haur eta gazteen psikiatria
ginecología	ginekologia	radiología	erradiologia
		recepción	harrera
		terapia ocupacional	terapia okupazionala
		tocoginecología	tokoginekologia
		toxicomanías	toxikomaniak
		trastornos alimentarios	jatearen nahasmenduak
		traumatología	traumatologia
		urología	urologia

2.2 Ohiko gaixotasunak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
ahogo	itolarri/itotasun/itobehar/itoaldi	infección	infekzio
astenia	astenia	inflamación	hantura
bocio	bozio	insuficiencia cardíaca	bihotz-gutxiegitasun
bronquitis	bronkitis	insuficiencia renal	giltzurrun-gutxiegitasun
bulimia	bulimia	insuficiencia respiratoria	arnas gutxiegitasun
cáncer	minbizi	intoxicación	intoxikazio/pozoitze
catarata	katarata/gandu/begi-lauso	laringitis	laringitis
cistitis	zistitis	leucemia	leuzemia
cólico	koliko	meningitis	meningitis
colitis	kolitis	metástasis	metastasi
conjuntivitis	konjuntibitis	meteorismo	meteorismo
contusión	ubel/kontusio	migraña	migraina
convulsión	konbultsio/dardara/dardarizo	nefritis	nefritis
depresión	depresio	neumonía	pneumonia/biriketako
dermatitis	dermatitis	obesidad	obesitate
desnutrición	desnutrizio	osteoporosis	osteoporosi
diabetes	diabetes	otitis	otitis
diarrea	beherako/sabeleko	pancreatitis	pankreatitis
disfagia	disfagia	peritonitis	peritonitis
embolia	enbolia	psoriasis	psoriasi
enfermedad infecciosa	gaixotasun infekzioso	quemadura	erredura/erre
epilepsia	epilepsia	quiste	kiste
esguince	zaintiratu/bihurdura/bihurritu	resfriado	hotzeri/burutik beherako
estreñimiento	idorreri	ronquera	erlats/marranta
estrés	estres	rubéola	errubeola
faringitis	faringitis	sarampión	elgorri/txarranpin
fractura	haustura	sinusitis	sinusitis
gastritis	gastritis	soplo	murmurio
gripe	gripe	sordera	gortasun/gorreri
halitosis	halitosis	tétanos	tetanos
hematoma	hematoma	torcedura	bihurritu/bihurdura
hemorragia	hemorragia/odoljario	tortícolis	tortikolis
hemorroide	hemorroide	traumatismo	traumatismo
hepatitis	hepatitis	trombosis	tronbosi
herpes	herpes	tumor	tumore
hipertensión	hipertentsio	úlcer	ultzera
hongos	onddo(ak)	varicela	barizela/astanafarreri
ictericia	ikterizia/horitasun/min hori	vértigo	bertigo
infarto	infartu/bihotzeko		

2.3 Gorputz-atalak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
antebrazo	besaurre	mano	esku
axila	besape/galtzarbe	mejilla	masail/matrail
barbilla	kokots	muela	hagin
boca	aho	muñeca	eskumutur/eskutur
brazo	beso	muslo	izter
cabello	ile/bilo	nalga	ipurmasail/ipurmami
cabeza	buru	nariz	sudur
cadera	aldaka/mokor	nuca	garondo
campanilla	aho-gingil/ubula	ojo	begi
cara	aurpegi	ombligo	zilbor/zil
ceja	bekain	oreja	belarri
cintura	gerri	paladar	ahosabai
codo	ukondo	pecho	bular
colmillo	letagin/betortz	pelo	ile/bilo
columna vertebral	bizkarrezur	pene	zakil
cuello	lepo/sama/idun	pestaña	betile
cuerda vocal	ahots-korda	pezón	titiburu/titimutur
culo	ipurdi	pie	oin
dedo	hatz/atzamar/eri	pierna	hanka/berna
	behatz (oinekoo)	puño	ukabil
diente	hortz/hagin	rodilla	belaun
encía	hortzoi/oi	sobaco	besape/galtzarbe
espalda	bizkar	talón	orpo
frente	bekoki/kopeta	testículo	barrabil
garganta	eztarri/zintzur	tobillo	orkatila
hombro	sorbalda/lepo	tórax	torax
hueso	hezur	tripa	tripa/sabel
labio	ezpain	uña	azazkal/azkazal/atzazal
lengua	mihi/mingain/min	viscera	errai
mandíbula	masailezur/matraillezur	vulva	bulba/alu

2.4 Gorputz-organoak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
ano	uzki	laringe	laringe
bazo	bare	ovario	obario/obulutegi
cerebro	garun/burmuin	páncreas	pankrea/are
corazón	bihotz	pulmón	birika
esófago	esofago/hestegorri	recto	ipurteste/ondeste
estómago	urdail/sabel	riñón	giltzurrun
hígado	gibel	traquea	trakea/zintzur-heste
intestino	heste	útero	umetoki/utero
intestino delgado	heste mehe	vagina	bagina
intestino grueso	heste lodi	vejiga	maskuri/puxika
intestino irritable	heste suminkor		

2.5 Eskeletoa

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
cadera	aldaka/mokor	omoplato	omoplato/sorbalda-hezur
clavícula	klabikula/lepauztai	pelvis	pelbis
costilla	saihets-hezur	peroné	perone
esternón	esternoi/bularrezur	pubis	pubis
fémur	femur/izterrezur	rótula	errotula/belaunezur/belaunburu
húmero	humero/besahezur	tibia	tibia/berna-hezur
mandíbula	masailezur/matrailezur	vértebra	orno



2.6 Probak/analisiak/ebakuntzak


GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
biopsia	biopsia	mamografía	mamografia
cesárea	zesarea	operación	operazio/ebakuntza
colonoscopia	kolonoskopia	prueba cutánea	larruazaleko proba
cura	sendaketa	prueba de alergia	alergia-proba
ecografía	ekografia	prueba de esfuerzo	esfortzu-proba
electrocardiograma	elektrokardiograma	prueba del azúcar	azukrearen proba
endoscopia	endoskopia	punción	puntzio
escáner	eskaner	radiografía	erradiografia
espirometría	espirometria	raspado	arraspatze
exploración	miaketa/azterketa	resonancia magnética	erresonantzia magnetiko
extracción de sangre	odol-ateratze	sutura	jostura
gastroskopia	gastroskopia	tomografía	tomografia
impedanciometría	inpediantziometria	transfusión	transfusio
inyectable	injektagarri	trasplante	transplante
laparoscopia	laparoscopia		


3.- HIZTEGI ESPEZIFIKOA

3.1 Laneko ohiko hiztegia


GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
acompañante	laguntzaile	motivo	arrazoi/zio
actualizar	eguneratu/gaurkotu	muestra	lagin
admisión	onarpen	obligatorio	derrigorrezko/nahitaezko
agudo	akutu	observación	ohar
anticoncepción	kontrazepzio	ocupante (de vehículo)	bidaiaari
área	arlo/alor/eremu	paciente	paziente
ascensor	igogailu	parentesco	ahaidetasun/senidetasun
atender	artatu	parto	erditze
autorizar	baimena eman/baimendu	petición	eskari/eskaera
beneficio	onura/mesede	piso/planta	solairu
causa	arrazoi/zio	provisional	behin-behineko
celador	zeladore	reclamación	erreklamazio/kexa
certificado	egiaztagiri/ziurtagiri	reclamante	eskatzaile/kexa-egile
cita	hitzordu/ordu/txanda	recepción	harrera
clave	gako	resfriado	hotzeri
comprometerse	hitzeman/konpromisoa hartu	resguardo	frogagiri
confirmar	baieztatu	sala de espera	itxarongela
cuidado	zainketa	SAPU (Servicio Atención al Paciente y Usuario)	PEAZ (Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua)
cura	sendaketa/osaketa	seguridad social	gizarte-segurantzza
dirección	helbide	servicio	zerbitzu
DNI (Documento Nacional de Identidad)	NAN (Nortasun Agiri Nazional)	sinistro	ezbehar
doctor/-a	doktore	solicitante	eskatzaile
embarazo	haurdunaldi	solicitud	eskabide/eskaera
empadronamiento	erroldatze	sugerencia	iradokizun
enfermera,-o	erizain	sutura	jostura
enfermo	gaixo	terminal	terminal
extrahospitalaria,-o	ospitale kanpoko	TIS (Tarjeta Individual Sanitaria)	OTI (Osasun Txartel Indibidual)
facultativa,-o	mediku	tramite	izapide
fecha	data	urgencia	larrialdi/urgentzia
firma	sinadura	usuario,-a	erabiltzaile
intrahospitalaria	ospitale barneko	vacuna	txerto
inyectable	injektagarri	vacunación	txertaketa
justificante de asistencia	bertaratze-agiri	volante	bolante/paper
médico (nombre)	mediku/sendagile		
médica,-o (adjetivo)	mediko		
mes	hil/hilabete		

3.2 Gorputz-atalak






3.3 Gorputz-organoak



3.4 Eskeletoa



4.- MATERIAL LAGUNGARRIA

4.1 Liburuak

- Gramatika bat: ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi: **Euskal gramatika osoa**, Didaktiker, Bilbo, 2000.
- IVA Pek oso liburu on eta interesgarriak dauzka: **Zalantza-dantza, Argiro idazteko proposamenak eta ariketak, Galdezka, IVA Peko estilo-iburua...**

4.2 Internet

- Lanhitz: http://www.euskara.euskadi.net/r59-14154/eu/contenidos/informacion/agiri_ereduen_bankua/eu_00212/agiri_ereduen_bankua.html
- Agiriak.net: <http://www.agiriak.net/>
- Sareko Euskal Gramatika: <http://www.ehu.es/seg/init.html>

4.3 Hiztegiak

- Elhuyar hiztegi elebiduna (hiztegi orokorra): <http://www.elhuyar.org/>
- 3000 hiztegia (hiztegi orokorra): http://www1.euskadi.net/hizt_3000/
- Euskalterm (banku terminologikoa): <http://www1.euskadi.net/euskalterm>
- Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua: <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua>
- Sinonimoen hiztegia (Adorez): http://www1.euskadi.net/hizt_sinon/indice_e.htm
- Hainbat hiztegi batera: <http://www.hiztegia.net/>
- Administrazio sanitarioko hiztegia (Osakidetza).
- Osatuz, monografikoa: Hiztegi Zalantzak Argitzen (Osakidetza).

4.4 Kontsulta-guneak

- IVA Pen "Duda-muda": <http://www.ivap.org/dudamuda/dudamuda.htm>
- Euskaltzaindiaren arauak: <http://www.euskaltzaindia.net/arauak>
- Elhuyar Fundazioa: <http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Hizkuntza-kontsulta>

Oharrak

Lehen Mailako Arretako gida: **Harrera**

